



MUSIKA

Bide bat bilatzen, aurrera egiteko



EIDER ITURRAGA / IZARBE PHOTO



LEPORA LEPORA

BONBERENEA EKINTZAK, 2020

JOXI UBEDA GOIKOETXEA

Rock doinu biziak, bortitzak, ilunak, gordinak, eta eromen gisako giroak entzun daitezke Lepora Gasteizko talde berriaren estreinako diskoan. Taldekideek 90eko hamarkadako hainbat rock talderen eraginak dituztela onartzen dute, eta Lepora sortu aurretik aritu ziren taldeen ukituak ere antzeman daitezke: Same Old, Eh!, Libe, Bronze, Tutan Come On, Iont, Kashbad eta Trumbo. Horrela, eskarmentu handiko musikariak direla nabarmena da.

Taldeak urtarrilaren 31n egin zuen bere lehen jendurreko emanaldia Gasteizko gaztetxean, Muinoko Hotsak egitasmoko egitarauaren barruan, baina bi urte inguru daramatza entseguak egiten, kantak sortzen eta bere soinua eraikitzen, bere musika proposamena zehazten. Denbora honetan egin dituen kan-

ten arteko zortzi bildu ditu bere lehen diskora.

Kanta bakoitzak baditu bere ezaggarriak eta xehetasunak, baina denetan nabarmentzen dira bateriak eta baxuak osatzen duten oinarri sendoa, gitarraren marrazki zorrotzak eta kantariak abesteko erabiltzen dituen ahots erregistro mota desberdinak.

Kantetan gordin mintzo dira, hitzek eta doinuek bat eginik. Besteak beste, egungo bizimoduari buruz aritzen dira, harremani buruz, sentimenduei buruz, eta etorkinen tragedia, boterea, agintariak eta jendearen alienazioa eta artaldekeria ere hizpide dituzte. Azken batean, bide bat bilatzen ari dira aurrera egiteko. "Lurra jotzean nekeza da berriz altxatzea, baina saiatzeak merezi du nekea", diote *Dardo uxa* kantan.

Taldekideak gustura egongo dira haien lehen diskoarekin. Lan ona egin dute, eta soinu trinkoa eta indartsua gauzatu dute, itzela, grabazioaz eta nahasketez arduratu den Karlos Osinagaren laguntza estimagarriarekin.

Diskoa binilo eta CD formatuetan kaleratu dute. Binilo moduan erosiz gero, karpetaen barruan CDA ere badago. Diskoa eskuratzeko zailtasunik egonez gero, Internet bidez eros daiteke eta postaz jaso Bonberenea Ekintzak zigiluaren webgunearen bidez (www.bonberenea.com), eta modu digitalean ere bai, taldeak Bandcamp plataforman duen gunean (lepora.bandcamp.com). Diskoa eskuratu bitartean, kantak Badok atarian (www.badok.eus) eta Bandcampen ere entzun daitezke. ●